


Euskara aztergai



Eskolaren harian

Rufino Iraola

Behin behar eta, oihan zarbatsuan barrena abiatu naiz oraingoan ere. ZUTABEtik lantxo bat eskatu eta kapazitatea baino borondate gehiago duen honek ezetz esaten jakin ez! Ez dakit zer aterako zaidan, zer tratatu nahi nukeen ere ez bait daukat garbi. Dena dela, 6/7 puntutan bilduko ditut klaseetan nireganaturiko esperientzia eta kezka batzu.

1. DUDAMUDAKO JOERA BATZU

a) *Infinitiboa ala partizipioa*

Nik dakidanez, ahalera, agintera eta subjuntiboan aditz nagusia infinitiboan eman behar dela erabakirik egon arren, idazle «batuzale» askoren artikuluetan *ekarri ditzake, justifikatu daitezke, sumatu daiteke* eta nahi adina antzeko aurki daitezke. Niri berdin zait alde batera ala bestera idatzi, baina hartzen ditugun erabakiak errespetatu ditzagun. Anarkiak ia beti ondorio txarrak ekarri ohi ditu. Klaseetan pentzatzen dut nik momentu honetan. Huskeriak izango dira; pentsa, ordea, huskeriaz huskeria noraino hel gintzekoen.

b) *Etorriz gero ala etorri ezker*

Oker ez banago, hau ere erabakia dago. Alabaina, begira azkenaldi honetan nolako nahasketa sortzen ari den. Bata ala bestea, baina nahasketarik ez, alajaina!

c) *Batean ala batetan*

Ez gara inor akklaritzen eta bakoi-tzak nahi duena egiten ari gara. Nik zer egin behar dut deklinabidea era batetara esplikatu eta kontrako frogekin datorkidan ikaslearen aurrean? «Badakizu euskara ez dagoela normalizatiruk» esan eta lasai geratu? Seriotasun gehixeago nahi litzateke!

2. ZENBAIT EGITURA ESPLIKATZEKO ITZULPENAK

a) *Egin galdegaia*

«Zaldia? Saldu egin dut». Benetan, niretzat, behintzat, zaila da egitura hau esplikatzea. Ez dute hori eta horrenbestez asimilatzen. Nik, lagungarri bezala, esaldiaren itzulpen literala erabili ohi dut sarritan. «¿El caballo? Vender he hecho.» itzultzen diet. Berebiziko barreialga-

ra probokatzen du eta momentu hori ez dute hain erraz ahazten. Metodo ridikulo samarra nahi bada, baina niri eman dit fruiturik.

b) *Ameriketari ibilia naiz*

Hauxe ere ez da erraza adierazten! Lotsa-apur bat ere ematen dit esa-teak, baina honela itzultzen diet «Soy andado en las Américas». Pentsatu besterik ez dago nolako iji eta ajak sortuko dituen. Lehenengo kolpetik ikasi ez dakit ikasiko duten, baina une hori behin eta berriz gogoratzen dutela frogaturik daukat.

c) *Norentzako, norekiko, norenganako...*

Izenlagun batzu oso erraz hartzen dituzte. Esate baterako, «harrizko etxea», «mendiko lorea». Erdarazko korrespondentzia zuzenagoa duten hauek ez dira hain nekosoak suertatzen, ez. Hemen aipatu nahi ditugun hauek ulertaraztea, ordea, gaitza da benetan. Erlatiboarena, hitz konposatuena eta beste baliabide batzu agortu ondoren, itzulpena jotzen dut. Ateratzen zaizkit bikainak! «Aitarentzako frakak.» «Los pantalones de para el padre.» «Semeekiko harremanak.» «Las relaciones de/para con los hijos.» «Anaienganako maitasuna.» «El amor de hacia los hermanos.» Agian, guzti honi kurtsi samar eritziko diozue, eta egundoko erreparoarekin ari naiz. Nolanahi ere, niri balio izan dit.

3. JOERA GRAMATIKALISTAK

Sorpresa itzelak ere hartu izan ditut. Gure obligazioa testuak klasera ongi aztertuta eramatea den arren, beti ez da modu, gogo edo denbora gehiegirik izaten, eta honelatsuko perla batzuekin aurkitu nintzen behin batean: «Urtain hogeita bost ur-

tetan ekin zitzaion boxeoari» edota «Honek hogeita duru kostatzen du». Ez dut esango gramatika aldetik gaizki daudenik. Ezta nonbait esaten ez zirenik ere. Baina formarik hedatuena «ekin zion» eta «kostatu da» direla, etc, nik neuk behintzat, batuerako azkeneko forma hauek proposatuko nituzke.

4. NAHASKETA BATZU

a) «Ezin dut»/«ezin dezaket»

Bi egitura hauek baliokidetzat hartzeko dagoen joera ikusirik, pedante eta kiskilosotzat hartuko nau norbaitek. Onartu behar badira, onartuko ditugu. Nirea azaltzea zilegi bekit, ordea. Guretzat, oraintxe ia nahasten hasi baldin bagara ere, diferentak izan dira biak. «Ezin dut eraman» edo «ezin naiz joan» gure gorputzaren ezintasun fisiko edo psikikoari dagokio. Nolabait esateko, ezintasun materiala da. Eta hiztunak, zerbait frogatu edo egiten hasi ondoren botatzen ditu honelakoak.

«Ezin dezaket eraman» edo «ezin naiteke joan» etika, legea edo erantzunkizunarekiko ezintasuna da, nolabait esatearren.

— «Haurrak bakarrik utzita ezin naiteke etxetik mugi.»

— «Hanka hautsita daukat eta ezin naiz mugitu.»

— «Hanka hautsita daukat eta ezin naiteke mugi, bestela ez zait sendatuko.»

5. ZENBAIT OKER

a) *Erlatiboa eta konpletiboa*

Erlatiboaren ordeztu konpletiboa erabiltzeko joera gero eta nabarmenago ari da sartzen gure artean. Baita «que» guztiak «(e)la»ren bidez ematekoa ere. Hori horrela, hitzetik

hortzera entzuten dira honako hau bezalakoak: «hain jokaldi ederra egin du, gol sartu duela». Eta uste dut, gainera, baldin eta Arantzazuko fraile hark hirugarren aldiz entzun zuenean irratia ostikoz jo eta komentuaren punta batetik bestera bota zuen moduan botatzen ez badugu, oraindik sarritan aditu behar-ko ditugula. Perpaus honek mila irtenbide dauzka. Hona hemen batzu:

- «Hain jokaldi ederra egin du... gol sartu.»
- «Hain jokaldi ederra egin eta gol sartu du.»
- «Hain jokaldi ederra egin duelarik gol sartu du.»
- «Hain jokaldi ederrari esker gol sartu du.»
- «Hain jokaldi ederraren bidez gol sartu du.»

Eta hemen ez ditut aipatzen «Hain... non» eta beste batzu. Bada-ki bete-betea ez diotela erantzungo erderazko korrespondentziari, baina hizkuntza bakoitzak bere legeak ditu.

b) «*Ez daukat zertan esan beharrik*»

Nork ez du entzun gisakorik? Hemen bi egitura daude nahasian: «ez daukat zertan esanik» eta «ez daukat esan beharrik». Biak banaka ongi daude, baina nahasian ez. «No tengo por qué decirlo» eta «no hace falta que lo diga» izango litzateke bakoitzaren itzulpena.

c) *Apenas!*

Partikula hau askok eta askok zeharo gaizki erabiltzen du. Erderazko esanahi bera ematen dio. «Apenas dago dirurik» hau erdera hutsa da. Erdarakada izugarria. Euskaraz diferentea da. Zalantza kutsua du eta egitura aldetik beti, salbuespenik gabe, zehargaldera eskatzen du.

«Apenas dagoen dirurik», «Antza denez, ez dago dirurik» bezalakoan esanahiaren inguruan dabil, eta ez erdarazko «kasi»ren balioarekin.

d) *Jolastu/jokatu*

«Jolastu» olgetan ibili da. Haurrak bakarrik jolasten dira normalean, baina haurrek ere helduen gauzetan hasten direnean ez dira jolasten, jokatu baizik. Haurrek ere, adibidez, pilotan jokatu egiten dute; futbolean ere bai. «Hugo Sánchez-ek asko jolastu du» esaten digutenean, kontrarioa oso txarra zela eta nahi duena eginez olgetan ibili dela ulertu behar-ko genuke. Baina «Hugo Sánchezek asko jolastu duelako irabazi du Madrilek» esatea absurdo bat litzateke. Partidu zail baten aurrean ez bait dago jolasean ibiltzerik.

6. ZENBAIT ESALDI

Badugu (agian lokalista samar-rrak?) zenbait egitura, oker ez bana-go, nik orain arte manejatu ditudan materialetan azaldu ez dena. Aipa ditzadan bat edo beste.

a) *-keenean*

«Masaileko bat emango niokeen egon naiz.» «Joango litzatekeen dago.» «He estado con ganas de pegarle una torta.» «Está con ganas de marcharse» edo antzeko itzulpena izango litzateke erderazko korrespondentzia.

b) *(e)la baldintzazkoa*

«Ongi dela, egingo da galanta.» (Ongi baldin daba, egindo da galanta). «Okerrik ez duela, Retegik irabaziko du txapela.» (Okerrik ez baldin badu, Retegik irabaziko du txapela). Agian gerundialetan sartzen dira, baina, beno!, hor dago matizazioa.

c) *Ez baino*

«Zoaz mendira hondartzara ez baino.» (Ez zaitez joan hondartzara, mendira baino.) «Haragia gustatzen zaio, arraina ez baino.» (Ez zaio arraina gustatzen, haragia baino.)

Komila arteko eta parentesi arteko perpausek gauza bera adierazten dute. Alde bakarra da perpausaren lehen partea «baiezka» ala «ezezka» eman eta horren arauera elementuak ordenatzea, esaldiak sentidu bera izaten jarrai dezan.